



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko martxoaren 30a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteentzako informazio aldizkariak gaztelaniz eta euskaraz aldi berean argitara ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritakoa, 5. kapituluko 2. idatz-zatiari dagokionez. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailletza sustatzeari buruzko irakasgai bat ezar dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona atzerritarren internamendurako zentroak itxi ditzan. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alfontso XII.a Gotorlekuaren azterlan historikoa eta arkitektonikoa egin dezan. Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du autogobernuari edozein muga ezartzea. Foru Araubideko Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako osasun-garraioa mantentzeko Erriberatik tratamendu onkologikoak hartzera etortzen diren gaixoentzat. Osasun Batzordeak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da sukalde-zerbitzua emateko aukera guztiak azter ditzan. Mozioa erretiratzea (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Enbrioiak ezarri aurreko Diagnosi Genetikoa (DGP) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-
ren zerbitzu-zorroan sartzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak eginga (11. or.).
- Galdera, jakiteko zer datutan oinarrituta esaten den Trenasa, S.A. enpresaren jardura ziurtatuta dagoela,
José Miguel Nuin Moreno jaunak eginga (12. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun Juan José Lizarbek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion.

Nafarroan Espainiako Paradorearen sareko bigarren establezimendu bat jartzeko aukera orain dela hamar urte baino gehiago sortu zen, Espaini-

ako eta Nafarroako gobernuen arteko elkarrizketen testuinguruan.

Kokalekuari buruzko zenbait gorabehera gertatu ostean –zenbait egoitza hartu ziren gogoan–, 2003an erabaki zen Lizarrako Santo Domingoko komentuan eginen zela proiektua.

Geroago, 2005ean, Espainiako Gobernuarekin aldeztu aurretik hala erabakita, paradorearen kokalekua aldatu zen, eta Iratxeko monasterioan jartzea erabaki zen, non behin-behinekoz Julio Caro Baroja Museo Etnologikoaren funtsak gordetzen baitira.

2007an, eraikina, salbu eta eliza, Estatuaren eskuetara igaro zen, 50 urteko eperako, helburu horretarako erabil dadin. Denbora honetan, eraikuntza-proiektua prestatu da; aurreikusitakoaren arabera, lau izarreko paradorea izanen da, 70 gela izanen ditu eta inbertsioa 23 milioi euro ingurukoa izanen da. Une honetan, lizitazioaren zain geunden denok.

Azkenik, martxoaren 13an, Industria, Energia eta Turismoko kontseilari José Manuel Soriaren bitartez jakin genuen paradorearen eraikuntza geldiarazteko erabakia hartu dela.

Hori ikusirik, ondoko mozioa aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion, bi administrazioek negoziatu, hitzartu eta sinatutako akordioaren esparruan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 16an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteentzako informazio aldizkariak gaztelaniaz eta euskaraz aldi berean argitara ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazteentzako informazio aldizkariak gaztelaniaz eta euskaraz aldi berean argitara ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Jakina da justiziak, baldin eta mantsoegia bada, justizia izateari uzten diola. Informazioak

ere informazio izateari uzten dio baldin eta berandu iristen bada, baldin eta martxoan informatzen bada urtarrilean edo otsailean ematen diren prestatuntzari, bekei, laguntzei eta gainerako gai interesgarriei buruz. Ekaitzaren ostean ez dauka zentzurik haizeteak aurrekustekak.

Eta hori da "Joan eta galde" aldizkariarekin gertatzen dena: gaztelaniazko bertsioa hiruhilekoaren hasieratik dago eskuragarri, haren erabilgarritasuna ziurtatzeko logikoa denez; euskarazkoa, berriz, bi hilabetetik gora atzeratzen da. Atzerapen hori dela-eta, gazteentzako informazio aldizkari horrek ez du bere eginkizuna betetzen; ez, behinik behin, euskaraz. Gazte euskaldunak aukeratu beharrean daude: berandu informatu ala gaztelaniaz informatu. Gure ustez, informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea ziurtatu beharra dago, ez soilik hiru hilabetekarien kasuan, ezpada astekarien kasuan ere. Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldi berean argitara ditzan gazteentzako informazio aldizkariak –astekariak eta hiru hilabetekariak– gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritakoa, 5. kapituluko 2. idatz-zatiari dagokionez.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete dezan Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritakoa, 5. kapituluko 2. idatz-zatiari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Foru Legea betez, terrorismoa arbuiaitzeko eta biktimei laguntzeko hezkuntza-programa bat zabal dezan.

Nafarroako Parlamentuak Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legea onetsi zuen aurreko legegintzaldian; 2010eko apirilaren 22an, hain zuzen ere. Ekimenaren berritasunen artean nabarmendu behar da Nafarroako DBHko ikastetxe guztiek, publikoek eta itunduek, urtean behin eman beharko dutela terrorismoaren biktimei laguntzeko hezkuntza-programa bat. Eduki horiek eman

beharra legez ezartzeak berekin dakar araua betetzen ez duten ikastetxeek gal ditzaketela jasotzen dituzten diru-laguntza publikoak.

Legean jasotzen denez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak hezkuntza programa bat zabalduko du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasotzen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, egoki iritzitako iraupena izanen duena. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuei ere emanen zaie aukera hori. Programak terrorismoaren aurkako bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak jaso eta islatuko ditu eta gazteak kontzientziatuko ditu ideia demokratikoak aldezteko bitarteko eta modua den aldetik hitzak duen balioari buruz.

Halere, ez dago argi ea programa Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietan funtzionatzen ari den. Hori dela-eta, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeko V. kapituluko 2. idatz-zatia bete dezan. Hartara, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, urtean behin, hezkuntza programa bat zabalduko du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasotzen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, egoki iritzitako iraupena izanen duena, terrorismoaren aurkako bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak jaso eta islatuko dituena eta gazteak kontzientziatuko dituena ideia demokratikoak aldezteko bitarteko eta modua den aldetik hitzak duen balioari buruz. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuei ere emanen zaie aukera hori.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailtza sustatzeari buruzko irakasgai bat ezar dezan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekintzailtza sustatzeari buruzko irakasgai bat ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroan ekintzailtza sustatzeari buruzko irakasgai bat ezartzeko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Europar Batasunak uste du, ekintzailtza-defizita daukala jakitun, ekintzailtza sustatzea funtsezko gizarte-beharrizana dela enplegua sortzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta ekonomia hazteko. 2000ko martxoko Europako Kontseiluak

gogoan hartu zuen hezkuntza eta prestakuntza garrantzitsuak direla espiritu ekintzailerako, eta lan handia egin beharra dagoela onartu zuen. 2003an, Europar Batasunak "Ekintzailearen Liburu Berdea" argitaratu zuen, eta Espainiak espiritu ekintzailea sustatzeko konpromisoa hartu zuen, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren bidez eta hezkuntza-etapetan espiritu ekintzailea sartuz.

Alderdi Popularraren ustez, egungo krisi ekonomikoko egoeran, beharrezkoa da administrazio publikoek eskura dituzten baliabide guztiak artikulatzea eta ekintzailtza sustapenera lehentasunez bideratzea. Alderdi Popularraren ustez, lehen unetik beretik sendotu behar da espiritu ekintzaile ikastetxeetan. Ikasleek, oinarrizko prestakuntzaren bidez, ekintzailtza kultura ikasi behar dute eskolan.

Nafarroako egungo hezkuntza-sisteman ez dago espiritu ekintzaileari loturiko kultura-baliorik, ekintzailtza esker dauden aukerei buruzko ezjakintasuna dago, eta eskolako hezkuntza-planetan ez dira garatzen enpresa-trebetasunak.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Hezkuntza Departamentua premiatzen ditu Foru Komunitateko ikastetxe guztietan jar dezan, oinarrizko prestakuntzatik hasita, ekintzailtza sustatzeari buruzko irakasgai bat.

Iruñean, 2012ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona atzeritarren internamendurako zentroak itxi ditzan.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita pertsona atzeritarren internamendurako zentroak itxi ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2002tik aitzina, "Migreurop" sarea engaiatu da Europar Batasunaren politika migratzailearen ondorioak dokumentatzen eta salatzen, bereziki pertsona migratzaileen atxilotetarenak. 2004tik aitzina, sare horretako kideek dei egin dute Europako mugetan internamendu-zentroak sortzearen aurka. Bitartean, bata bestearen ondotik heldu dira txostenak, Nazio Batzuen Erakundeak, Torturaren prebentziorako Europar Batzordeak, Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen Komisarioak, parlamentu-misioek, nazioarteko erakundeek eta gobernuz kanpoko erakundeek eginak. Inkesta nahiz gertalekuko behaketa guztiek daramate ondorioztatzera atzeritarren atxiloteta administratiboa berez dela oinarritzko giza eskubideen urraketak bat: lehenik eta behin zirkulatzeko askatasunarena baina baita asilo eskubidearen, bizitza pribatuarekiko eta familia-bizitzarekiko errespeturako eskubidearen eta gizatasunaren edo duintasunaren kontrako tratuerik ez jasotzeko eskubidearena ere, eta are pertsona ahulenek –bereziki adingabeek– dituzten eskubide berariazkorena ere. Europako Parlamentuak 2007an eskatutako azterlan batek erakusten duenez, "atxilotze-zen-troetako konfinamenduaren eraginez, bertan atxi-

kitako atzeritarrek arazo psikologikoak izaten dituzte, edo dituztenak okerragoz dira, eta nahasmendu horiek dramatikoak izan daitezke adingabeen kasuan". Sarritan, inolako kontrol judizial eraginkorrik gabe egiten da itxialdia, norbanakoaren askatasunak daudenean jokoan.

Atzeritarren internamendu-zentroek dakarte espetxe-sistemaren mugetatik harantzago hedatzea espetxe-eredua. Lege-zehazgabetasunak salbuespen arbitrarioa dakar, eta ahalbidetzen du Zigor Kodean tipifikatutako delituri egin ez duten pertsonak atxilotzea, segurtasun juridiko eza (larria) eta defentsa-gabezia handia eraginez atxikitako pertsona migratzaileei. Zer izen ematen zaien alde batera utzita, atzeritarrek atxikitze zentroak tresna pribilegiatu bat bihurtu dira migrazioen kudeaketari dagokionez. Epaitu eta zigortu gabeko pertsonak atxilotzen dira, espetxe-baldintzak ezartzen zaizkie, zenbaitetan ziegetan sartzeraino, eta horretarako arrazoi bakarrik da mugak zeharkatzea-ri eta egonaldiari buruzko arauak errespetatu ez izana, nahiz eta arau horiek nazioarteko zuzenbidearen aurkakoak izan daitezkeen; esate baterako, errefuxiatuen babesaren esparruan. Zenbait lekutan, ohikoak dira tratatu txarra eta indarkeria fisikoa edo psikologikoa. Sarri gertatzen dira gorabeherak (matxinadak, gose-grebak, suteak); batzuetan, dramatikoak izaten dira (nork bere buruaz beste egitea, heriotzak), eta horrek agerian uzten du itxialdi-sistema ez dagoela aplikatzen zaien pertsonen egokituta. Sistema egotea anomalia bat da berez, zeina ikusezintasunetik soilik baita posible.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du atzeritarren internamendu-zentroak itxi ditzan, eta, ondorioz, alda dezan Atzeritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko eta Atzeritar horiek Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, eta susta dezan halako migrazio politika bat non gizarteratzean egiazki oinarrituta egon den, eta ez populazio migratzailearen erabilpenean, pertsona guztien oinarritzko eskubideak ziurtatuko dituen, beren jatorria gorabehera.

Iruñean, 2012ko martxoaren 22an

Foru parlamentariak: Aitziber Sarasola Jaca, Marisa de Simón Caballero eta Nekane Pérez Irazabal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alfontso XII.a Gotorlekuaren azterlan historikoa eta arkitektonikoa egin dezan.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Alfontso XII.a Gotorlekuaren azterlan historikoa eta arkitektonikoa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun Juan José Lizarbe jaunak eta UPN parlamentu-taldeko Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alfontso XII.a Gotorlekuari dagokionez zenbait ekintza egin ditzan.

Nafarroa kultura-ondare garrantzitsuko erkidegoa da. Aurreko beste zenbaitetan egindakoaren haritik, Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEk

Nafarroako Kultura Ondareari buruzko Akordio bat sinatu zuten 2009an. Akordioan jasotako jarduketan artean sartzen zen bi jarduketa handi egitea "Leku Historikoak" atalean, baldin eta aurrekontuak horretarako bidea ematen bazuen: Nafarroako gazteluetako eta defentsa-arkitekturako indusketa-plana eta Ezkabako Alfonso XII.a Gotorlekuaren gaineko historia- eta arkitektura-azterlana.

Bestalde, zenbait talderen ekimenez, Legebiltzar honek hainbat proposamen aztertu ditu, bai gotorlekuari dagokionez, bai Ezkaba mendiko eskualde-parkearen erabilera eta gozamenari dagokionez.

Prozesu horretan aurrera egiteko eta administrazio ezberdinek egindako lanari bultzada emateko, sinatzaileok ondoko ekimena proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Alfontso XII.a Gotorlekuaren gaineko historia- eta arkitektura-azterlana egin dezan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak aurreikusitako jarduketan esparruan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azken bururaino eraman dezan Ezkabako etorkizuneko eskualde-parkearen udalez gairik proiektu sektoriala izapidetzeko eta onesteko prozesua, behin sustatzaileek, beren udal-mugapean Ezkaba mendia hartzen duten zazpi udalek eta Iruñerriko Mankomunitateak, hura bukatuta.

Iruñean, 2012ko martxoaren 22an

Eledunak: Juan José Lizarbe eta Carlos García Adanero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du autogobernuari edozein muga ezartzea.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak, 2012ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du autogobernuari edozein muga ezartzea". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldek aurkeztutako mozio bat, 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du autogobernuari edozein muga ezartzea

Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatzen duela Espainiako Konstituzioko 135. artikulua garatzeko Lege Organikoaren izapidetzea eta balizko onespena baliatu ahal izatea Nafarroaren autogobernuari edozein muga jartzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako osasun-garraioa manten dezan Erriberatik tratamendu onkologikoak hartzera etortzen diren gaixoentzat.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko martxoaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako osasun-garraioa manten dezan Erriberatik tratamendu onkologikoak hartzera etortzen diren gaixoentzat". Horren jatorria da Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldek aurkeztutako mozio bat, 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako osasun-garraioa manten dezan Erriberatik tratamendu onkologikoak hartzera etortzen diren gaixoentzat

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du doako osasun-garraioa manten dezan, zentro tertziariora sarritan joan behar izatea eskatzen duten onkologiako tratamenduak nahiz bestelako tratamendu edo proba batzuk egite aldera Nafarroako Erriberatik Iruñeko ospitaleetara joan behar duten gaixoen joan-etorrietarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Gurutze Gorriarekin batera azter dezan zer arrazoi egon diren gaixoak García Orcoyen ospitaleetik Iruñeko ospitaleetara garraiatzeko zerbitzuak erabilera hain murrizta izateko, ea behar bezalako publikitate egin den eta ea gaixoek zerbitzuaren berri ote zuten.

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da sukalde-zerbitzua emateko aukera guztiak azter ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2012ko martxoaren 21ean egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Osasun Departamentua premiatzen zen sukalde-zerbitzua emateko aukera guztiak azter zitzaizkion.

Mozio hori 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Enbrioiak ezarri aurreko Diagnosi Genetikoa (DGP) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan sartzeari buruzkoa.*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Enbrioiak ezarri aurreko Diagnosi Genetikoa (DGP) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak zer erantzun emanen dio Nafarroako Ospitaleguneko Laguntza Bidezko Ugalketako Unitateari, edo zer jarrera hartuko du, Enbrioiak ezarri aurreko Diagnosi Genetikoa (DGP) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan sartzeari dagokionez?

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakiteko zer datutan oinarrituta esaten den Trenasa, S.A. enpresaren jarduera ziurtatuta dagoela.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer datutan oinarrituta esaten den Trenasa, S.A. enpresaren jarduera ziurtatuta dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Parlamentuan orain dela gutxi egindako agerrialdi batean, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak adierazi zuen bere departamentua eta Trenasa, S.A. enpresa harremanetan daudela, I+G proiektuak direla-eta, bai eta 2013rako jarduera eta lan-zama ziurtatuta daudela ere.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak zer datu darabil bai ez tatu ahal izateko Trenasa enpresaren 2013rako lan-zama eta jarduera ziurtatuta daudela?

Iruñean, 2012ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

